

**BERGARAKO UDALA
OHARRA**

Udaltzaingoaren ofizial ondokoa, Udaltzaingoaren antolaketa-ko koordinatzailearen plaza betetzeko deialdia.

1. eta 2. ariketak

JAKINARAZTEN DA Epaimahaiak 2022ko apirilaren 13an egindako bileran erabaki hauek hartu dituela:

1. Oposizio aldiko lehen ariketa (teoriko/praktikoa) :

- a. 2022ko apirilaren 26an goizeko 9:00etan egingo da.
- b. Udal liburutegian egongo dira izangaiak ordu horretarako.
- c. Gaitegiak jasotako legedia edo aplikagarri den araudia: 2022ko apirilaren 13an indarrean dagoenera egokituko da. Lege edo arauak aldaketak izan balituzte kontuan izan beharko dira.
- d. 40 galderek gehi 5 erreserbakoek osatuko dute azterketa.
- e. 4 erantzun aukera izango ditu galdera bakoitzak eta horien artean bakarrik bat izango da zuzena.
- f. Azterketa egiteko 50 minutuko denbora emango da.
- g. Gaizki erantzundakoek penalizatu egingo dute: 0,10 puntu deskontatuko dira gaizki erantzundako galdera bakoitzeko (erantzun zuzenekin lortutako puntuazioari).
- h. Azterketa era anonimoan zuzenduko da.

2.- Bigarren ariketak aurreikusten dituen proba psikoteknikoak.

- a. 2022ko apirilaren 26an oposizioaldiko lehen ariketa bukatu eta jarraian egingo dira (atsedenerako denbora tarte bat izango da).
- b. Hainbat ariketek osatuko dute 2.1. proba hau.
 - b.1.- Gaitasunaren inguruko hiru ariketa izango dira, arrazonamendu abstraktua, logikoa eta ahozkoa neurtuko dituztenak.
 - o Gutira 15 puntura arteko balioa izango dute.
 - o Gaizki erantzundakoek 0,10 puntuko penalizazioa izango dute.
 - b.2.- Nortasuna neurtzeko proba bat.
 - o 15 puntura arte baloratuko dena.
- c. b1 eta b2 proben artean atsedean tartetxo bat emango da.
- d. b1 eta b2 ataletan aurreikusi diren proben artean, gutxienez, 15 puntu atera beharko dira gainditzeko.
- e. Jarraian doan agirian Bigarren ariketaren informazio osagarria.

Bergara, 2022ko apirilaren 13a
EPAIMAHAIKO IDAZKARIA



BIGARREN ARIKETAK AURREIKUSTEN DITUEN PROBAK

2.1 TEST PSIKOTEKNIKOA

48 itemeko galdetegi bat proposatzen da, **arrazoiketa abstraktua, arrazoiketa logikorako eta hitzezko arrazoiketarako gaitasunak** ebaluatzeko, izangaiak deialdiko lanposturako egokiak diren baloratzeko.

Proba honi 15 puntu emango zaizkio gehienez, bigarren probak balio dituen 30 puntuetatik.

- Arrazoiketa abstraktua:

- **Deskribapena:** 16 itemeko galdetegi, 4 erantzun-aukera dituen. Diagramak, eskemak eta marrazkiak ulertzeko, erlazionatzeko, maneiatzeko, kodetzeko eta deskodetzeko gaitasuna da, esanahiaren arabera erabakiak hartuz. Erlazio abstraktu-espazialak eta patroiz geometrikoak identifikatzea ahalbidetzen duen trebetasuna da.

- Arrazoiketa logikoa:

- **Deskribapena:** 16 itemeko galdetegi, 4 erantzun-aukera dituen. Maila ertaineko arrazoiak proba bat proposatzen da, non hitzezko elementuak, zenbakizkoak, analogiak eta arazo logikoak tartekatzen diren. Hainbat esalditan emandako informazioa ulertzea, aztertzea eta laburtzea da zeregina, horien bidez informazio berria eta ondorio berriak lortzeko.

- Hitzezko arrazoiketa:

- **Deskribapena:** 16 itemeko galdetegi, 4 erantzun-aukera dituen. Idatziz aurkeztutako kontzeptuak erabiltzeko, ulertzeko, erlazionatzeko, aztertzeko eta sailkatzeko gaitasuna da. Emaizari nabariena hitzezko eta/edo idatzizko produkzioan gauzatzen da.

Proba hori zuzentzeko, irizpide hauek aplikatuko dira:

- Galdera bakoitzak lau erantzun-aukera izango ditu, eta horietako bat bakarrik izango da zuzena.
- Hautagaiak denbora jakin bat izango du ariketa bakoitza egiteko.
- **Erantzun oker bakoitzagatik 0,10 puntu kenduko dira.** Erantzun bat baino gehiago dituzten galderak erantzun gabekotzat joko dira. Erantzun gabeko galderak eta zuzenak ez dira zigortuko.
- **Zuzenketa era anonimoan egingo da.**

2.2. NORTASUN-TESTA:

Lan-nortasunari buruzko galdetegi bat egitea proposatzen da.

Helburua: pertsonak lanean duen jardunarekin lotutako portaera-jorak ebaluatzea, kategoriaren profilarekiko doikuntza- edo desbideratze-maila kontuan hartuta.

Itemak: 119.

Denbora: 30 minutu.

Deskribapena: 119 itemez osatutako galdetegi, 7 erantzun-aukera dituen.

Gaitasunei buruzko galdetegi bat da, non pertsonak lanean duen funtzionamenduari buruzko enuntziatuak aurkezten diren; zehazki, hamazazpi gaitasun, **lau arlotan banatuta: kudeaketa-arloa, emozio-arloa, harreman-arloa eta berrikuntza-arloa.**

Gainera, hautagaien zintzotasuna baloratzeko, **gizarte-desiragarritasuneko eskala bat** sartu da.

Hauek dira galdetegian aztertutako arloak eta gaitasunak:

• **KUDEAKETA-ARLOA**

Bere buruarenganako konfiantza

Antolaketa eta plangintza

Arazoak konpontzea

Erantzukizuna

Erakunde-sentsibiltatea

Erabakiak hartzea

• **EMOZIO-EREMUA**

Autokontrola

Presioarekiko tolerantzia

• **HARREMAN-EREMUA**

Asertibitatea

Komunikazioa

Pertsonen garapena

Enpatia

Lidergoa

Gatazkak konpontzea

Talde-lana

• **BERRIKUNTZA ARLOA**

Ekimena

Pentsamendu kontzeptuala

Testak balioesten dituen gaitasunak elkarren artean konbinatu eta haztatzen dira, eta hamabost faktore sortzen dira (desiragarritasun sozialaz gain), testak zuzenean kuantifikatzen dituenak: ASERTIBITEA, KOMUNIKAZIOA, NORBERAREN BURUAREKIKO EZAGUTZA ETA SEGURTASUNA, FRAKAZIOARI ETA FRUSTRAZIOARI BURUZKO KONTROLA, DISKREKZIOA, ENPATIA, LISKARRA ETA ARAZOAK KONPONTZEA, TALDE-ESPIRITUA ETA LANKIDETZA, EGONKORTASUN EMOZIONALA, EKIMENA/ERABAKITZEKO GAITASUNA, OSOTASUN PERTSONALA/ETIKOTASUNA, PENTSAMENDU KONTZEPTUALA, HERRITARREKIKO ORIENTAZIOA, ERANTZUKIZUNA, PRESIOAREKIKO TOLERANTZIA, DESIRAGARRITASUN SOZIALA.

Zuzenketa: Zuzenketa era anonimoan egingo da.



Balorazioa: Proba honi 15 puntu emango zaizkio gehienez, bigarren probak balio dituen 30 puntuetatik.

Puntuak test psikoteknikoan lortutakoei gehituko zaizkie, eta izangaiak gutxienez 15 puntu lortu beharko ditu atal honetan gai izateko.

